# Kurutze barik...!

Kurutzearen irudi deuna
Kendutearren tamalez,
Ezagutu dot mutikotxo bat
aman aurrean negarrez.

Biotz samindu barren barrendik
Urteten eutsen malkoak'
Maitasun gartsuz nastuak ziran
itaun onein antzekoak:

«Ama, zegaitik kendu dauskuez
kurutzeak ikastolan?
Zer egin dau ba, Yesus maiteak
gorrotatzeko orrelan?
Ez da ba Yesus ludi onetan
ontasuna erein dauna?

Ez da gugaitik kurutza baten
bizitza emon ebana?
Ez da ba Yesus umeak gustiz
maite-maite zituana?
Ama, zer dala kendu dauskue
gure Yaun maite laztana?....

Amak zer esan ez ekian ta,
Begietako malkoak
izan zirean semearentzat
aman itzen ordezkoak:

«Ene semetxu maite, kutuna,
Gizon gaizto bai gaiztoak
kendu dituez ikastolatik
Gure Yauna'ren Kurutzak
Eusko errian ori be yasan?....
Ez ete gara lotsatzen
gure asaba ziñestetsuen
seme garala esaten?....

**Gabirel**

## YOSU´REN YAYOTZA – EKIN 1932-048-01

Aur txikitxo ta polita
yayo yaku Bethlemen
goazen pozez ikustera
goazen danok len-bai-len.

Zer da bertan dakusguna?
Aurtxo samur polita,
otzez dar-dar aska baten
eztauko zer yantzi ta.

Abeletxe baster baten
Miren ta Yosebagaz,
abere bi berotzeko
dauz arnasa lurrunaz.

Ene ederroi; etzara Zu
donoki-lurren yabe?
Zelan zagoz kutunori
iñon laguntzagabe?

Zeuk ez dozu piztu goyan
eder-eder euzkia?
Zer dagi bere Yaunari
bialtzeke argia?

Egaztiak Zeuk eztozuz
apain yantzi ederrez?
Eztozuz aran, muñoak,
yantzi lora, bedarrez?

Txoritxuok lo zagoze?
Lo zagoze gaxuok?
Orain abestezpozue
itxi betiko abuok.

—Txoritxuok ixill gagoz;
ez dogu abestuten;
Ez dantzuzuz ba gotzonak
Yaun-Aurtxoa goraltzen:

«Aintza ta aintza Donokian
Yaungoiko Altsuari
gentza zoruna ludian
gogo zintzodunari?»

Eguzkiak iges dagi
Yosu yayo dalako;
*Argia* dagon tokian

eguzkia, zertako?

Yantzi barik dar-dar dago
Yosu otz ikaragaz;
nai daulako berotzea
geure maitetasunaz.

Zatoz, Yosu biotzeko,
zatoz maite gugana,
geu-biotzok eskintzera
yun gaitezan Zugana.

Yaungoikoa Aur eginda
yayo yaku Bethlemen
maitasuna eskintzera
goazen danok len-bai-len.

# ARRIAK

BIALDUAK




*Ama Begoñakuen*
*rudi maitia*
*dunetik zeustana*
*biñi ezkegia,*
*ular ganian dabilt*
*naitero gordia:*
*era da neure lagun*
*ta zaindaria,*
*erak alaituten daust*
*endiko bizia,*
*era da, zeure ordez,*
*matxu neuria.*

*Euzkadi'ko erîtxu*
*xas ertzekua*
*rantzale apalen*
*biya gozua.*
*lebada'ko mendian*
*aurtitako oyua*
*xas ganian ziar*
*uganuntza dua,*
*ne biotz agurau*
*eragaz darua*
*Gora Euzkadi eta*
*eure eritxua!*

# BAZKUNAREN

# A

stiñau-ikasbide jai bi edo iru
te bat Mungia'n eta irugar-

ari eragiten dautsen aurera-
neska-mutiltxoak bizkortzen
irakasleak... ene irakasleak

# Gizon ete dira?..

*Gizon asko dakustaz*
*umetxo antzera,*
*jira-biraka beti*
*batetik bestera.*

*Gaur eretxi bat dauke*
*etsiko beste bat,*
*urte bete barúan*
*eretxi pilo bat.*

*Batan auŕean zuri,*
*bestean gorizka,*
*dirudi dabiltzala*
*ume lez yolaska.*

*Benetako izaten*
*iñoz ez ikasi,*
*egiaren ondotik*
*beti daoz igesi.*

*Yaungoikotzat urdala*
*aldezletzat miña,*
*zer yan ez eukitea*
*oreintzat samiña.*

*Danakaz adizkide,*
*iñogaz ez gizon,*
*olangotan ba'dago*
*ugari ta nai non!*

*Aritu eingo gara*
*au olan izanik,*
*argiz be ezin bo'gu*
*aurkitu gizonik?*

*Ze gizon dira oreik,*
*beti aldatzea,*
*ba'da olangoentzat*
*bizitza legea?*

*«Eguzkia nora ta*
*araxe zapiak»,*
*eroateko dabez*
*alegin gustiak.*

*Orexeik bai'dirala*
*gustiz kaltegari,*
*txarak baño geyago*
*gutzat bildurgari.*

*Ortxe da gure gatxa*
*or dago untzea,*
*orein eru da sari*
*ezer ez eitea.*

*Ondo yatorkenari*
*beti daoz begira,*
*olangoak benetan*
*gizon ete dira...?*

GABIREL

# Gure aizkidiak

Jaungoikoak Bena B. Jaunarija il da

# Kurutze barik...!

Kurutzearen irudi deuna
Kendutearren tamalez,
Ezagutu dot mutikotxo bat
aman aurrean negarrez.

Biotz samindu barren barrendik
Urteten eutsen malkoak'
Maitasun gartsuz nastuak ziran
itaun onein antzekoak:

«Ama, zegaitik kendu dauskuez
kurutzeak ikastolan?
Zer egin dau ba, Yesus maiteak
gorrotatzeko orrelan?
Ez da ba Yesus ludi onetan
ontasuna erein dauna?

Ez da gugaitik kurutza baten
bizitza emon ebana?
Ez da ba Yesus umeak gustiz
maite-maite zituana?
Ama, zer dala kendu dauskue
gure Yaun maite laztana?....

Amak zer esan ez ekian ta,
Begietako malkoak
izan zirean semearentzat
aman itzen ordezkoak:

«Ene semetxu maite, kutuna,
Gizon gaizto bai gaiztoak
kendu dituez ikastolatik
Gure Yauna'ren Kurutzak
Eusko errian ori be yasan?....
Ez ete gara lotsatzen
gure asaba ziñestetsuen
seme garala esaten?....

**Gabirel**

## "Aberriak argitzeko zuzia"

Eskuetan arkai zuriak biztuta ikusi ditut uri politeko agintari, elizgizon eta eritarak. Andra Mari'ren Garbikunde-jaya, Kandelario baita, euskaldunak autortzen dau nundikoa dan gure benetako argia, nork ekari euskun zeruetako argi eder ori.

Tamalez, gure inguruko Aberietan argi ori ilunduaz doa; *latinoak* deritzen lateriak beraztkadan dagoz, eta gizarteazko jakintzetan ait: ak direnak beintzat, aultasun ori siñestearen otztasunatik datorela diñoe.

Gizarteko lege ta lokari guztiak eten dabezan agintari deungak, eriak galzorira daroez buruz-aurera, siñestearen aztarnak be kendu nairik; eta itsutasun gaiztoenean asmo au betetako, gizadiaren aurerapiderako bearreko dan alkartze-eskubidea be ukaturik Jaungoikoaren ordezkoai, ekandu on, menpetasun eta zuzentzaren ituria agortu gura leukie.

Siñestea dala erien sendotasuna ondo agiri da, or beyetako uri andietan gizonak pizti egin-da ikusirik, alkarenganako maitasun ordez goroto zitala darioela, ta ez legerik ez beste euren gurarien kaltezko ezer ezagutzen dabela, danen gainetik laster joaten dirala. Alkareganako lotsa, gurasoazko maitasun eta legearen itzala ikusteko ez joan ora; igon baseri ta euskaldun urietara, siñestearen ituritik bizitza artzen daben eri oreitara.

Gaureguneko jainkobakoen irakasle zaarak, Voltaire berak, argi-une baten ziñoan: «Ibili or jakinkerietan; baña baseri bat nai badozue zuzen erabili be, bearekoa izango da Jaungoikozaletasuna. Egin dagigun—eta Jaungoikoak ezpegi nai izan— eri osoa siñeste bakoa dala: orduxetik gizarteko lokari guztiak eten dira, eta gaiztakeri guztiak isuriko dira lurera ta eria lapur aldrea izango da».

Beraz ona dala gizona uste izatetik datoz oker oreik, eta gure berezko ontasunaren ustea Rouseau oldozlari baño amesla-rian bakarik sortu ledi. Chesterton'ek obeto diño, gizasemien jatorizko ogena ikusteko eziaukola etxeko leyotik atez begira-

## AGUR JAUNAK...

*Euzkeldun zintso, agur dagitzut,*
*anai-agura biotzez...*
*eta nor nazan yakin nai bozu,*
*«EKIN» daukotzut izenez.*

*«Jaungoiko - Zale»n semetxoa*
*bere ordezko nayatzu,* [naz,
*Goiko-Egia zabaldu nayan*
*gaste kemenaz ta sutsu,*

*Ziñestea dot biderakusle,*
*Euskera nire yantzia,*
*ta elburutzat euskeldun danak*
*Egi-bidez zuzentzea.*

*Gure aberi maite onetan,*
*guzur-zaleak ugari,*
*gaiztakeria zabaltzen dabiz...*
*¡Euron kaltez naz gudari!*

*Orexek dira nitzat etsayak,*
*enparauak adizkide,*
*Egizaleak diran orontzat*
*poz geznari ta lankide.*

*Kistar euskeldun zintso danakaz*
*nai neunkez artu-emonak,*
*eurok dira ba, niretzat beti*
*adizkiderik onenak.*

*Izango ete da bat bakara be*
*etsaitzat artuko naunik?...*
*Yaungoiko eta Euskerarenak*
*nire etsayak, bakarik.*

*Eguzki antzez eurontzat bere*
*izango ditut izpiak,*
*aleginduaz argitu daizan,*
*Kistar Ikasti egiak.*

*Euskeldun ingi oroi bere*
*anai-agur samurenak*
*dagitzuez gaur zeuon sendiko*
*anayatxo txikienak.*

*Maitasun batez alkartu eta*
*Yauna'n laguntzaz batean,*
*Egia nai non zabaldu daigun...*
*«EKIN...garaitu artean....*

GABIREL.

**Egurola'ren jostetxea**

Era bariko ebate ta egintza. Eri ta erbesteko oyalik onenak.
LEKEITIO'n eta BERMEO'n Urzelai-kalean 16'gn.
Ilen lenengo astelenetan BILBO'n, Parra ostatuan Belostikale 7

EGILEOR'TAR JON G. TA SEMIAK
AUTONOMIA-24'gn. — ABANDO'n

Igali edo *fruta* ta basoko zugatzak. Landa, ta ortu - azijak. Zimaurak; kokuak ilteko gayak, eta abar. Landara -gaitz-k kentzeko irakaskixunak. Ortu ta barat-eredubak.

**Kandela-ola andija**

I Urtea

ZORNOTZA'n 1932

# EKIN



JAUNGOIKO
BAZK
ASTERO

## Astea

**Batzar andi bat Bilboko Diputasiñoan.**

*Lengo domekan Bilboko Diputasiño-Etxean, Batzar andi bat egin zan, Irakastola nagusi bat egiteko asmoz. Batzar au ezkertaren burutik egin zan. An izan ziran, beste askoren artian Prieto, Agire ta Oreja be. Ezkertaren asmoa zan, Gobernuak Deustun Jesuiteri kendu dautsen Etxea, areri ezer ordaindu barik, Irakastola nagusi biurtzea. Eskertarak nai eben, eurek esaten eben guztiari Amen egitea. Baña, batez bere Agire ta Oreja gogor kontra jari ziran. Onek esan eutsen Euskotarentzat lotsari bat litzakela, iñoren etxean, ezer ordaindu barik, Irakastola nagusi ori egitea. Ta Agirek, oin, asmu bide ori, ezetarabe eztala konbeni, Irakastola nagusi ori, nun eta zelan egin erabagitea* **Estatutoari** *dagokiolako; eta ganera, biyar edo etxi, etxe orek euren jabiak kendu leiskiguezalako. Erantzun onek ondo etxakez jari ezkertarari, batez be Prietori. Onek esan dau Agire gizon porteu zala. Baña Orexak aizerikeri asko ta buru gitxi daukola. ¡Bai ba, onek pentzetan dau bere besteko bu-*

## Sozialista

**Bayetz eta ezetz**

gauza batetzaz, egija batera ezin ixan leiteke. Aldian dirurik badaukozu?—edozeñeri itanduten badutsegu, bai, eta ez, egijaz esan ete leike?—Ori itandu be ezin leike, zorotzat daukogun bateri ixan ezik. Aor ba, sentzunbakokeri au gaur askori entzuten jako,

**Sozialista ta katoliko**

ixan leikela batera esaten dabenian. Edo eztakije zer dan katoliko eta sozialista ixatia, edo burua arindu jakela esan biar. Gauza batetzaz Eleixiak eta katolikuak bayetz esaten dabenian, sozialistak ezetz esaten dabe. Katoliko benetakuak Elexiaren irakatsiak jaraitu biar dabezan lez, ezingo dauz egitzat euki, ez jaraitu, sozialisten irakatsijak. Jaraitu bestela urengo lero onek irakurten.

**Arima ilezkora**

daukagula esaten dausku Elexiak, eta emengo bizitza ondoren beste bat dagola; ludian bizi dala gizona gero beriko aisegintza irabazteko, oin emen daukogun bizitzia erbesteko bizitzia dala, eta gure egiazko aberia zeruan daukogula. Sozialistak

guztijok etziran ... artuta be egon. Gauř emen, bijar beste alde baten, oř zebiltzazan itzaldi ta *mitin* bizi-bizijakaz, al ebezen gixon guztijen autařkijak norberentzako batu guran.

Egun areitako gau baten, *radio* -tramankulubagaz zeozertxu entzuten nenguala, oř nun Barcelona'tik iragaři eben *sindikalista* ... «*Muy buenas noches, señores ... que ustedes descansen, y hasta mañana, SI DIOS QUIERE*».

—Jaungoikorik etzeguala-ta ezkaituk geratu ala? Esan-eustan aiskidiak. *Sindikalista* izlarijaren guzuřak urten eutsala-ta, pa... zantzoka alkar aguřkatu giñian.

BETZAIDE

# EDURRARI BEGIRA

*Edur maluta*
*zuri, politak,*
*txori lumaren*
*antzera,*
*alkařen leyan*
*yausten dakustaz*
*jira-biraka*
*luřera.*

*Begiarentzat*
*ikuskizun au*
*atsegingaři*
*bai ziñez!*
*Gogoa bere*
*egian antza*
*daulako edo,*
*poz-pozez!*

*Ez dakit baña*
*zer daun eduřak*
*margo zurien*
*bařuan,*
*Ikusi eta*
*oldostu naya*
*sortzen daust beti*
*gogoan.*

*Ain aratz, zuri,*
*agertu ařen,*
*laster da ur loi*
*biurtu,*
*ta bizkor-bizkor*
*ondamendi daun*
*ibai zabalan*
*ondatu.*

*Umetxoak be*
*pozik dakustaz*
*edur malutak*
*yaustean,*
*Ikusi barik*
*euren bizitzan*
*antza, maluta*
*zurian.*

*Ume ořeik ba*
*malutan antzez,*
*biurtzen dira*
*ur garbi,*
*aldi luzea*
*igaro barik*
*¿Ibaiko ur loi?...*
*¿Nok daki?...*

*1932'ko II 14'n.* GABIREL


MESARAKO ARDAUA
ENPARA GUSTIJAZ EGIÑA
LANPARA'RAKO ORIOA
BIURTU GUSTITARIKO, LOKABE ESKIERTASUNA
**ABAITUA ANAYEN ONDORENGOAK**
BIDEBARRIETA 14.—BILBAO


*... pentzura-ta. Baña ¿zer esan dau? ¿zer argibide emon dau? Nik uste dok, iñoiz baño be egokiago esan neikela ementxe, Batxiler nintzala ikasi neban esakune au: «parturiunt montes, ridiculus mus; mendiyak kunie egiteko egon dira, ta azkenez, nařu gořiko ařatoi kaskar bat baño eztabe egin. Egiz ořen asmu-bide guztiyak oraindio nařu gořiyen dauz. Eskeřak laster udia datořena, bestela......*

**Oriamendi.**

*Irakuři dogu, Karlistena dala ta agertu dan izpařingi onen lenengo zenbakia. Gure zorionik sutsuenak pozik emongo geuntsozan, zintzotasunen zamařik bertan ikusi bagenduan. Baña eztogu ikusten, norbaitzuetzat zirikadea-zirikadearen gañean baño, batez bere Pildain Jaunak Gernikan esandako itzak oin artuta. Guri auxe iru dituten yaku: Un Caballero de la triste figura.*

**Presupuestoak. (zor-arturenak).**

*Karner Hasiendako Ministroak, irakuři dau Kongresoan berak aurtengo sartu-urten, ta zor arturenatzaz daukon amesa.*

*Aurten 4.461 miloe peseta emon bear ei-dire. Iges baño 771 miloe geiago. Iges 3.753 miloe batu bear ziran. Baña beařik eza, uelgia ta naztea dala-ta, eztira batu. Aurten tabako, industri ta beste enparaueri geitu dautsenaz 3.970 miloe batzeko amesa dauko. Iges 3.753 miloe batu ez iranean ¿aurten 3.970 miloe batuko ete dira? Baña oindio ori ezta naikoa urteko zor guztiak pagetako. Onetarako, esan doguna lez, 4.461 miloe bear dira-ta. ¿Zetan geratzen gara? Zořian.*

*¿Zořian? ¿zelan izan leiteke ori? Eztauz ba 44 miloe ařeratu Mařuekosetan egin dan barakea dala-ta? Eztautsez ba 37 miloe abadieri kendu? ¿Nun sartzen ete dira oin diru ořek? Zořa bardinduteko iñon dirurik ařeratuko ete dau?*

loya eginda bere ganean eizale-
ko oiturea daukenak garbiago
eukiitea, ezin izaten diralako ga-
nean eizan. Eretena be egin be-
ar da jausieriagaz kortaren al-
derdi batera, gar nu eta ur-loi
guztiak jo dayen toki batera.
Toki edo pozu onek egon bear
kortatik kanpora ta ez iñoz be
korta barruan. Bete orduko ber
tatik atera bear dira urok ganez
egin baño len. Berau ongari on
on-ona da izaten da luferako
eta baila be zimaurari botateko.

urten dayon eta kokuak ilez ga-
nera, onurakoŕa dan lez luŕera-
ko, ez da ezer galtzen.

Azkenez baseŕietan edozer lan
baŕi asten danean, nai dala la-
gun bizi-toki edo abere-tokian,
euki beti goguan Aldundi edo
Diputasiñoyak sarituten dabela,
berak jaŕita dagozan baldintza
edo kondisiñoyetan egin ezkero,
eta beragaz aitu barik ez asi.

ALKORTA'TAR M.

*Lekeitio'ko Albaiterea*

# ¡KURUTZE BARIK..!

*Kurutzearen irudi duna*
*kenduteaŕen tamalez,*
*ezagutu dot mutikotxo bat*
*aman auŕean negaŕez.*

*Biotz samindu baŕen baŕendik*
*urteten eutsen malkoak,*
*maitasun gartsuz nastuak ziran,*
*Yaun onein antzekoak:*
*«Ama, zegaitik kendu dauskuez*
*kurutzeak ikastolan?*
*Zer egin dau ba, Yesus maiteak*
*goŕutatzeko oŕelan?*
*Ez da ba Yesus ludi onetan*
*ontasuna erein dauna?*
*Ez da gugaitik kurutza baten*
*bizitza emon ebana?*

*Ez da ba Yesus umeak gustiz*
*maite maite zituana?*
*Ama zer dala kendu dauskue*
*Gure Yaun maite laztana?...»*

*Amak zer esan ez ekian ta,*
*begietako malkoak,*
*izan zirean semearentzat*
*aman itzen ordezkoak:*
*«Ene semetxu maite, kutuna,*
*gizon gaizto, bai gaiztoak,*
*kendu dituez ikastolatik*
*Gure Yauna'ren Kurutzak.*
*Eusko eŕian ori be yasan?...*
*Ez ete gara lotsatzen,*
*gure asaba ziñestetsuen*
*seme garala esaten?...»*

GABIREL

zu...?

**Beste «zer» bat**

Ikastoletatik kurutzak kentzen
ibili danetariko bat Gipuzkoa'ko
eŕi polit batera eldu zan. Kurutz-
eak kendu bear zirala ta, endore,
alkate yaunagana yoan zan. Au
katoliko zintsoa zan eta berak
iñondik be ez ebala kenduko adi-
razi eutson; katoliko zalako, ta
eŕia be yaikiko zala uste ebalako.
Ta beste *zer* oŕek erantzun eu-
tson bera «radikal socialista» za-
la ta legea bete bear ebala. Eta
katoliko izatez, bera be *katoliko*
zala, «eta ziñeste gura ezpadozu
ara», ta eskapularioa erakutsi eu-
tson, ...Amaika olango «barkile-
ru» badok basteŕetan...

**Radio'tik mesea entzun?**

Italia'ko izpaŕingi batsuk, orixe
itandu dabe, eta oŕetarako dagon
Eleiz-Batzordeak, yakiña, ezin
leikela erantzuu dau, Mesa entzu-
teko gorputzez, bertan egon bear
dalako. Olan ezpalitz ederto gi-
ñake! Eleizarik be ez litzake
bearko. Alan da be, Batikano'ko
iŕatzkiñez gexoentzat, igandeko

egin zituezan. Amaikatxo eŕu
kori burua mostu be bai. One
riko bat Lyon'go Paul deuna
eleizako abade buru izan
1793'n espetxeratu ta eriotza
epaitu eben. Burua mostu
eutsen tokira igon ebanean,
tan buru egiten ebanak esa
tson:

—Gizon, zeure abade a
emon eiguzuz, eta Eŕepub
parkatuko dautzu.

—Galdu egin dodaz, baŕ
te iyeki bat zeruan dago,
rua mostu egidazu, bere bi
naiten.

**Oŕek jes**

Txiña ta Yapon'daŕen
guda onetan, Chapei e
Soung yapondaŕak bor
tzeko egozala, Jacquinot
tar «jesuitea» aurkeztu
ume, ta emakumak
epea eskatzen. Eta ya
kandik lortutako baipen
emakume, ume, ta zar
tzeko aŕiskutik uŕintz
eben.


**Aranzibia'tar Lorenzo jaunak**
ZALDIBAŔ'KO BERE MINTEGIJETAN
SALGEI DAUKOZ **LANDARA MUETA ED**
**ler (pino) enda onenetaikuak, akazia, aretx japondar, eukaliptus sagar**

# ¡KURUTZE BARIK....!

Kurutzearen irudi deuna
Kendutearren tamalez,
Ezagutu dot mutíkotxo bat
    aman aurrean negarrez.

Biotz samindu barren barrendik
Urteten eutsen malkoak' (1)
Maitasun gartsuz nastuak zíran (1)
    itaun onein antzekoak: (1)

«Ama, zegaitik kendú dauskuez
    kurutzeak ikastolan?
Zer egín dau ba, Yesus maiteak
    gorrotatzeko orrelan?
Ez dá ba Yesus ludi onetan
    ontasuna erein dauna?

---

(1) No estamos seguros de que, al entonar así estos tres versos, interpretamos exactamente el pensamiento del autor.

erduan bakarik sartu be-
nik beteten eztodazan
betelen, ez, baña,

e neuriak dodazan se-
rakasteko, zegaitik ez-
neuk gura dodan ira-
gaitik bidali bear dodaz
e-alabak lateŕiak gura
tolara? Nik yaŕi dodan
akasteko gai eztalako
k lelo onek nire seme
kasteko gai eztan ira-
eskuetan iminiko ete
irakaslia ondo ordain-
? Eta irakasle onaren
iminten ba'dodaz, er-
lazo egingo ete daust?
astoleak azke edo li-
bear dau. Gurasuak
ak nora gura bidaltze-
dedun dira-ta, eztago
rasuai *legez* eskubide
korik. Onetan lateŕiari
da ikusi ia ikastola
teŕiaren kaltezko irakas-
ten danentz, ez beste-
a, lateŕiaren irakasliak
akatsi bear ba'lebe, or
ndiak letorkez. Eta ixan
ren irakasliak asko nai
do nai txarto irakatsi,
baziko leukie-ta, yaki-
e be elitzake auŕeratuko;
irakatsi ezkero, baŕiz,
ta nok geyago iraka
ko litzakez irakasliak
tzea geruago ta auŕera-
o litzake, irakaskintzea
Eŕietan yazoten dan lez.
etan lateŕiari dagokona
k eztirian ikastolak idigi-
zo ta eragotzi barik, txa
agundu al dauen giñuan;
gelditzen ba'da ikastola
eziñik, irakaslia-ta zegaz
urik eztaukolako, oŕen-
olankuentzako ikastolak
or be, ikastolara yuan ezi-
asi ta bere burua landu ba-
ditu eztaiten. Len esan do
sendiaren uŕengo datoŕen
o gixabatza udala da ta
en uŕengo lateŕia. Au dala
asuen uŕengo irakaskintzea
begiratu beaŕ dau, lateŕiak
engo ta beste bien utsak
ko. Au dala-ta irakasliak
u be gurasuak eurak egin
eukiez, oŕetarako eurenez-
kubidia daukie-ta; gurasuak

usteldu ba'dadi, lateria be manatu ta usteldu egingo da, ituŕi loyak ur loya emoten dauen lelxe.

Lateŕiaren geyegikeria beti be kaltegaŕi ba'da, askoz kaltegaŕiago Eŕi azpiratuentzako. Lateŕiaren geyegikeriak galtzen dauz Eŕi azpiratuen izkuntzea ta berarizko ixakerea, bere izkuntzako irakasliak iminita. Ez al da au guri euzkotaŕoi yazo yakuna ta yazoten yakuna? Au dala-ta, alan be iñondiko alegiñak egin bear geunkez irakaskuntzea azke ixan daiten.

URUBIETA

# Illunpean..!

*Egiz eŕukaŕi da.*
*Ekaitz ilunpean,*
*oyan-zear galdua*
*gabaren erdian.*

*Biotza taupadaka*
*dar darka gorputza,*
*inguruan darabil*
*eriotza baltza.*

*Itxaropen-argirik*
*ez dakus iñondik,*
*nai-non iluntasuna,*
*ezer bez besterik.*

*Eŕukaŕi da ziñez*
*bidezti gaxoa,*
*samiñez aseta daun*
*gorputz ta gogoa...*

*Giŕñaren ekaitzpean*
*goiko argi barik,*
*bizitz-bidez doana,*
*zer da ba besterik?...*

GABIREL

**Eleizkixunetarako Argizagizko kandelak**

**Elexiak aginduta daukazan erakuak**

Kandela motak: MAXIMA ta NOTABILI, ziguŕtasunaren ikuŕatzdunak, azkenengo aginduen arauz.
Kandela oneikaz CAPITEL GAUNA erabili ezkero, argizagi asko auŕeztuten da.

**QUINTIN RUIZ DE GAUNA'REN SEMIA**

GAZTEIZ (VITORIA) - ARABA

KIN

IRAGARKIAK
Ingoski osoa bein 200 lko.
Erdie . . . . . 120 »
Laurena . . . . . 70 »
Zortzirena . . . . 40 lko.
Tartietan lerro bakotxa. 1 »
Pilatuta . . . . . 0'25 »
Urte gustian ipinitekotan %, 50 jatxiko da.

k, bariro deadar
nzken atsa atera

eixeko estalkia,
bitu zan, eta lu-
ban ta ariak za-
digi, ta ildako
asko berpiztu
Jesus berpiztu-
era etori ziran,
yakezan. Eun-
Jesus zaintzen
lur-ikarea ta
kusita, bildur-
n, eta iñoen:
Semea zan ori

txu emakume
oren, mirabe-
oriak. Euron
lara, ta Miren
a'ren ama, ta
ama.

**ratzea.**

ldu zan Jose
gizon abera-
ea berau be.
ta Jesus'en
n; ta Pilat'ek
n. Jose'k, ba,
a garbiz ba-
n ebagitako
*ipiñi*, eban,
dia, piringi-
zan. Miren
liren, bariz,
egozan.

**enean.**

ade-buru ta
era batu ta
goratu yaku,
k bizi zala-
egun baru
indu egizu,
erarte ilobia

rada Biblia
gunak orain-
iurtua

asleak etori
pua ostu, ta
k berbizi da,
zkeneko iru-
io txaragoa
Pilat'ek eran-
aleak bai di-
dakizuenez,

laria ikuraz-
len zaipean

I.

urregintza
mba

## Gizonak ¿non dira?...

*Yesus maitea Kurutza baten zintzilik dager*
*Koskotegi'ko mendian,*
*Samintasunez, biotza lertzen, daukoz begira,*
*emakumeak aurean.*

*Egiz egitan zuzen zaleak, poz ta neketan*
*dira maitale zintsoak,*
*laidogaritzat irudi oren, ara daroaz*
*Yauna'n maitasun gartsuak.*

*Erugeari lagun eitean agertuten da*
*egizko zuzentasuna,*
*kemen, adore arigaria emoten dauna*
*edateko beastuna.*

*Emakume Deun goragariak ondo dakie*
*Yesus erugea dala,*
*eta bakar.k laga-ta iges egiten dauna*
*ezezgari ta koldara.*

*Non dira orain gizon panparoi aropuztuak?*
*¿Non dira neke aldian?*
*¿Nora igasi yoan dira oin, Yesus itxita*
*bakarik etsai artean?*

*Beraz batean il arteraño izateko ta*
*orain dakustaz igesi!...*
*Berak ainbeste maitatu eta, eskar gustiak*
*olan ordaindu Yesus'i?...*

*Yaun maitearen Biotz samurak alan da bere*
*maite-maite dauz biotzez,*
*ta zanetako odol gus'ia izuriten dau*
*eskar txararen ordañez...*

*Gaurko gaiztoak, txeren bai'lira, or dabiz zoli*
*Kurutze deunak bastertzen,*
*Non dagoz ori galerazteko* **gizon** *zuzenak?*
*Ez doduz iñon ikusten!...*

*Iges ein eben ikasle aen antzeko asko*
*ikusten dodaz, bildurti,*
*Ikasle Maite, Yon deun antzera, Kurutz oñetan*
*gitxi dakustaz maitati.*

*Yaunak gugaitik ez ete ebazan igaro neke*
*ta samintasun gogorak?*
*Non gagoz ba'da bere Kurutza aldeztuteko?*
*¿Non ete dira gizonak?...*

GABIREL

★

¿Itxasontzijen jabe ala Itxasketa-Bazkunen bateko bazkide ete zara?

¿Zeure salkariak iñora bidaltzen ete dozuz itxasoz?

¿Zeure ekintzarako ala salostetxerako salkaririk itxasoz iñondik artzen ete dozu?

Izan leyezan ariskuetzaz, gitxi ordainduta, eskier ixan gura bazara; okerik, galtzerik daben-



ZORNO



EK
JAVNG... KO
B
ASTE

## Astea

*Igaro yaku Aste Santua, neke ta zamintasun izugariak gomutasoten dauskuzan astea. Alde batzuetan eri jiran, ibildeun izugariak egin diraz. Beste batzuetan, ori ezin izan dabelako, Eleiz baruan bertan egin dabez. Baña batzuri ta beste ori eldu yaku* Berbizkunde eguna, *ta onegaz batera Eusko-eriari, bariz,* Aberi Eguna. *¿Zer izango ete-da au? Nik ezin neinke, ezetara be, azaldu egitarau guzti ori. ¿Nok azaldu noraño eldu leitekean euskotar ta euskaldunen biotza? Ori ta guzti be, «Eusko Emakume Abertzale Batzakoak» esku artean darabileñez, iruditu geinke jaso leitekeanaren izpitxu bat. Egun oreitan, besterik ezean be ikurin dotoreak izango diraz. Emakume guztiak izango-dabe, bakotxak bere soiñekoari josita agiri-agirian, edergaritzat, ikurin bat. Baña euren ezpanetan ¿ze izkuntza izango ete dabe? Badakigu «Emakume Abertzale Batza»koen artean, asko, euren ezetariko eru barik, oindiño, euskera ez dakienak dagozala. Baña euskera dakienak eurak ¿ze izkuntza erabiliko ete-dabe? Baldin, egun oretan, euskera balerebile be, geienez beintzat ¿zein darabile? Onixeri bai, egiz, benetan, eta egoki esari geunskiyoezala Jesukristok, beste asmo batez bere Aberitarai esandako itzak: Ene Aberitar maiteak «zenbat* bidar neure magalpean batu nai izan zaituet eta eztozue nai izan» «¡Emakume Abertzale maiteak, zenbat bidar esan yatzue «Euskera eta beti euskera» egiteko, eta eztozue ezegaitik be nai!»

21 BENE

Benetako *gizonak* gero ta uriago noro entzun eta esan be egiten dog bearéko izan ba'dira, ointxe bai nai rala! Gizartea bakean dagonean bearéko gauza da, artu-emonetan b daben gizonagandik gustiak iges e Benetasun barik, alkarenganako us daiteke. Eta alkarenganako uste e barik, gizarteak zelan iraun? Alkar sartuko dabiltzazan gizonak, *gizon* Olangoen artean Diojenes ospetsu etoriko ba'litz be, izen eder oren leuke aurkituko.

Eta ori bake aldian egia ba'da, koen antzeko naspil eta itxulaskun netasuna iñoz baño bearékoago aldian ez gara bizi ba. Iñoz zintso ointxe yokatu bear dogu.

**Benet**

Gizonak *gizon* izango ba'da, egiz yanaritu bear dau; bere bio ta bere naimen edo borondatea Oretan dago gizonaren zorion gu tan *Nai izan* ta lortuteko alegin g tuana ikusten dogunean: *¡Ori do zona!*, esaten dogu. Ori nai iza naikoa, geureganduteko alegin g ditugu, nasai-nasai yarila geugan uste izatea, tentelkeri andia izang

Mendi goyetako aixe osasun ba'ditugu, geuk bertara igoteko al ditugu, geugana mendia etoriko egin barik... Soloa landu barik o ko yakola uste daben nekezaria dogu. Egi, ontasun, eta zuzen egiz izateko, euren bila gogoz eki eta bein geuregandu ezkero, euro kuen bidetik iñoz eta ezegaitik be bear. Geure elburua lortuteko ba katu bear dogu. Oretarako bide burena dalako, baña aukeratze onuratsuen danik ez diñogu, zor galtasun eta bideko eragospena -bidetik ibiltea nai ta ezkoa izat

Onango benetasun gitxi ikus iñoz baño bearékoago izan aren

ak) ta siñesge asko ... dabezan itzaldiai, jakitunkeri lurkoyaren antz pizkat artzea, ta onexek-edo atzera eragion. Izan be, Paul deunaren itzak dira: «giza-jakintzaren elantzea (berbeta-jaza) neure erausi ta itzaldietan erakutsi barik, Jaungoikoaren adore ta indaŕa baño, Jaungoikoaren indaŕean ta ez giza-jakintzan zuen siñestea etzan dedin». (Korint. II 4,5). Oŕaitiño, Atenai'ko Areopagoan itz-egin-bear izan ebanean, an egoan idazpurua gaitzat artuki, jakintsu-eran iñardun eutson Kristoren aldez. Prantzian izaten diran itzaldi ospetsu oŕeik be eleiz-gizon bikain askok aintzat artu daroez, ta arimen artean ez ondasun gitxi zabaldu.

1929'tik *Pinard de la Boullaye* josulaguna da garizumako izlari ori. Lenengo urtean *Josu ta Edesti edo Istoria;* bigaŕenean *Josu Mesia;* irugaŕenean be *Josu Mesia*, andiro azaldu ditu; eta aurten *Josu Jaungoikoaren Semea* gaitzat darabil. Sineste bakoai zuzenduak izan-aŕen, bestiontzat be onuratsuak dirala uste dot; niri beintzat gogoa gozatzen dauste, zeruko iñontzak ez bakaŕik lur legoŕak, edozein landa poztuten daben antzo; eta azterkariari baldin baderitzo, itzaldi oŕein laburpena emen egingo neuke. (1)

Eleiz-gurasoak jakintza ezeben ezetsi, laguntzat artu baño irakatsietan; «jakintza onegaz,—Agustin deunak ziñoan,—siñeste osasuntsua sortzen da, ta beragaz alikatu, aldeztu, sendatu». Siñeste-aldezko lanetan jakintza-gayak ugari darabiꞁez Justino Martiri, Kuadrato, Aristides, Atenagoras, Ireneo, Klemente ta beste Alejandria'ko irakasle andi Origenes'ek, Tertuliano, arerioai eupadaka iñotsenak: «ez jakintzan ez gurentasunean ez dauskuzue geyago egingo kristotaŕai»; Arno-

atera zan legez, Kristo bere ... gaŕen egunean bizirik eta aintzatsu jaikiro zan luŕaren sabeletik.

7

# ¡RESURREXIT!..

¡Gora biotza! kistar maitea!..
¡Poztu gizadi gustia!..
Poztu eŕuge naiz obendari!
Bizi da Yesus maitea!..

Iꞁobiaren iꞁuntasunak
argitu dira betiko,
Aintzaz beterik dager gaur Yauna,
iñoz geyo ez ilteko.

Etsai gaiztoen goŕoto baltzak
Non dira orain? Non dira?..
Zurbil, ixuti gustiak dagoz
bata besteai begira.

Oŕetarako ziran irañak?..
Oŕetarako iŕiak?
Oŕetarako izan al dira
kurutza laidogaŕiak?..

O eriotza zer egiten dok?..
Non yagok ire garaitza?
Non yagok ire laŕitasuna?
Non dok beaztun mingotsa?

Girña, obena guzur ta samin,
zer dagizue geldurik?..
Ez dakuszue Gaizkatzaꞁea
bizi eta aintzaz yantzirik?

Zuen almena ondatu dok gaur,
eta ondatu betiko,
Yaun-maitaleak ez yok geyago
zuen bilduŕik eukiko!..

Alegin danak egikezuez,
gizon argalon kaltean,
Kemenez beti yaŕaituko yok
zeruruntz biziz aldian.

Une batean uste ba'dok be,
ire menpeko dokala
ez egik uste ixango dala
orain arte lez argala.

Izkiꞁu danak gertau egizak,
sutu egik amoŕua,
Goiko laguntzaz biŕinduko dausk
beti-betiko burua.

¿Non geldituko ire samiña?
¿Non yagok ire garaitza?
ire samiñaz egiten ba'yok
donoki ateko giltza!..

¡Gora Biotza, kistar maitea!..
¡Poztu gizadi gustia!..
¡Poztu eŕuge naiz obendari!
¡Bizi da Yesus maitea!..

GABIREL

1932'ko Aste Gureno.

*Eratsi egizue jauretxe au ta iru egun buruan eraikiko dot.* Bere gorputzaz eragoyan Jesus'ek. Uŕatu egizue, ba, iñotsen, nire gorputz au, baña jakin, iru egun baŕu baŕiro piztuko dodala. Ta Kristo'ren etsayak ulertzen eben, Jesus'ek iñona, ta esan gura ebanez ulertu be.

Ezta au lakorik ludian jazo. Sentzundun diran gizonak, nai ta-ez, jo bear ditu jazokun onek. Enpaparau gizonen izaera, danik altsuenak eta ospetsuenak izan da be, obirano eltzen da. Bein gorpua obian sartu ezkero, areiñak egin eban. Nor izutu daroa, luŕari ikara eragiterano, eldu zan Alexader Nagosiak? Nori daragio Napoleon'en itzalak?

Kristo'ren indaŕa, ostera, obitik sortzen da. Kristo piztu zan, eta argia ta sua, goi-argia ta maitasun-sua zabaldu ebazan baster gustietara bere piztuerak.

*Goŕi-goŕirik, atxen artian,*
*an iꞁargia...*
*itxes-aldian dagert dirzdizka*
*gau goŕia...*

*Ondatu dira eguzkiaren*
*izpi zuriak:*
*teꞁatuetan laban dagite*
*iꞁargi izpiak...*

*Eskil-soñuak din-danka dagoz*
*baseŕi elizan:*
*Gorbei aldeko sakonak deutse*
*jardesten din-dan...*

IRUARETXETA.

Urkiolan 1932.

Arbide ta Zuenaŕieta'tar Lander Baler, Biꞁabona'ko apaiz-eŕetore ja-na il onen 21'gn. il da.

Orue-Mazaga eta Leuro'tar Josebi Urigoiti'ko (Orozko) txaunburua il onen 17'gn. il da.

Biak gure bazkide ta lagunak izan dira. Biak arimazaie zintzo ta ardura-tsuak; euren eleiztaŕakaz bat egiñik egozan ta, aren onerako lanian aspertzen etziranak.

Euren aldez otoi bana dagigun, senidiai atsekabe samiñean laguntzen deutsagula.

G. B.

Geruago edeŕago ta atsegingaŕiago egin gura geunke gure asteroko au ta, aldiz-aldiz ederkun ta gauza berriak agertuko dira.

Gaur asten gara *Aŕugain* euskal idazle ezagunak euskeratutako *Trueba* entzutetsuaren ipuin polit bat argitaltzen. Uste dogu irakurleak atsegiñez artuko dabela. Onen ondoren beste ipuin batsuk, eresiak ta abar agertuko dira.

Euzkeraz ondo irakurteko ... ...

en jainkoizunakazko goŕotoa
geŕ; ta ori gora bera Josu eu-
ezagutu eben kurutzalduna
ungoikoaren semetzat gurtzen
en, Jaungoiko bat autortuaz:
l deunaren itzak ugari ta argi-
dira onetan, eta martiriak jain-
zunen auŕean ez-belaunikatze-
artu eben eriotza ezta autor-
makalagoa. Paul Deunaren
kiak ederto aztertzen ditu Pi-
Abak. ¿Nok esan dagike
noak eta kristiñauak gogo
ebela?

* * *

su berak irakatsi ebalako,
an bere Jaungoikotasunaren
ea sartu zan lenengotatik.
eri - zaleak gura leukienez,
zean Galilea'ko arotza Jaun-
irudibiau zan, Kepa ta ama-
aginduaren azpian, ogeta-
rte baŕuan. Gitxitxu deritze
batzuei, ta aintziñetatik
oiko bakaŕari Aita ta Se-
izenean gur egiten eutso-
stiñauak diñoe. Eta Seme-
mania, Amerika, Inglateŕa
tzian guzuŕezko «Kristoren
k» atera dautsez, egiaren
ezin emonda kurtzean iliko
mea ogetamar urtean Jaun-
Bakaŕaren maĺara igoteari.
aigun bere gurentasun ta
aitik gurtutea eskatzen
baña Aitaren bardin egi-
n liteke, Paul Deunak eta
k gaiztetsiten ba - eben
ko bakaŕa ezik beste iñoŕ
? Paganoak bein Jaurlari
ko egin ebeneko, laster
sko geitu ebazan: ¿zelan
ñauak be, bein Josu Jaun-
zkero, Andra Miren, Jon
Apostoluak?... ¡Zeinbat
eztira eurok besteak
ŕak Eleizan sartu ziran-



# Zetan gagoz...

*Eleiza'ren etsayak
amoŕu biziaz,
guda gogor dagie,
alegin gustiaz.*

*Zerutar egiaren
irakatsi deuna
ondatzeko asmoa
da eurok dabena.*

*Biotzan goŕotoa,
indaŕa eskuan,
asmo galgaŕienak
ditue buruan.*

*Gustia ondatzeko
bideak zabalik
dituez eta nor da,
galerastekorik?*

*Non dira Eleiza'ren
gudari zintsoak?
Non dira kistar zintso
ta adoretsuak?*

*Zer dagigu geldirik
ezer egin barik?
Gudan bakez dagonak
ete dau sentzunik?*

*Yesus etsai artean
ta gu gagoz lotan?
Noz izango gara gu
Kistaŕak benetan?*

*Zetan gagoz geldirik?
Non dau adorea?
Noizko gordetan dogu
gure ziñestea?*

*Ez esan geyagotan
kistar on garanik,
etsai gustien kaltez
ez bogu kemenik.*

*Eleiza'ren etsayak
gu ondatu nayan,
ta zintso yokatzeko
gu oin bere ezpayan?*

*Garean lez agertu,
diñogun lez izan,
Kisto'n gudari legez
yokatu bizitzan.
Txaŕari beti eutsin,
onagaz garaitu.
Yauna'ren legeari
kemenez yaŕaitu...*

GABIREL

*ak Jesus'en agurkerako itz on-
eik: apur bat ezkero enozue
ikusiko, ta beste apur bat ezke-
ro ikusiko nozue. Aita'ren gana
noa-ta».*

*Kirikiñok be, bere euskel
-idazleai, «Euzkadi»ko, euskel
-ataletik, agur egikeran, onen
antzera esan eutsen: Ni banoia
Mañariko sasipera, ta oin ez
nozue ikusiko lengo «Euzkadi»
ko lan-mayan... eta, andik den-
pora gitxi baŕu, bear bada iñok
uste baño len, Azken Ikurtonak
artzean iñoan: Ni bañoia Aita-
gana, neure betiko Abeŕira. Ba-
ña, oin, bere betiko abeŕitik di-
ñosku: beste apur bat ezkero
ikusiko nozue. Onegaitik egun
berezijagorik ezin autu eikeala
dirudi igandea baño, emengo
luŕeko Abeŕi-maitasuna, ta Ze-
ruko Abeŕi-maitasuna alkartze-
ko, «Kirikiño» kristiñau onak
alkartu ebazan lez. Berak erein-
dako asi onak aŕnari ugariak
emon dauz-ta, igandean batez
be, gentedi andija bildu zan be-
re iĺobijan, eta berberak goie-
tatik, poz-pozik ikusiko dabe-
zan euskel-izketa ta euskel-ira-
kutre eta euskel antzerkiak egin
zirean.*

## Gotzain agurgarriaren idazkia

*Gure Gotzain erbestetua,
uŕun-zamar egonaŕen ezta gu-
tzaz aiztuten. Loretako il zora-
gaŕia uŕeratutean, aŕen-bai
-aŕen dirausku geure Zeruko
Ama zamur eta eŕukioratzaz
ez aiztuteko. Ez dogu aiztu
bearko ba, iñoiz izan badogu
laguntza beaŕik ba, geure areri-
oak ain soli eta bizkor dabil-
tzazan aldi onetan da-ta. Eta
iñoiz bez bear bada, aldi ego-
kiagorik, ointxe baño, bere
etoŕereagaitik,* **"Salbea"** *esa-
teko be.*

eta adore barik, lan
eta lana baŕiz egun
Gizonak egunor
izerdiaz busti bea
biar eta etsi, bizit
zeregiña dala edo
gañera, gizonak,
bear dau eta edon
alegin egin bear d
ak Bere goi-argia
deunak euskuzala
koz eta ez ondo ta
gutzeko da gai g
buŕuka ez dau eg
uŕatu ta giŕñaren
kemen barik zer e
Gure biotza zo
da gizona «zorion
egi andia da, alde
inguratuta bizi dal
tian etsayez beter
azpiratu ta auŕera
yakola?
Oŕez gañera, gi
di abere dalako, e
putza gogoaren m
deunak diñok lez,
yagiten dalarik, n
urtengo ba'dau, k

Eegi onein bid
bere buruaren yab
eko dabela. Eta
dala izango. Bere
gizona zer da ba?
bilen inge edo k
bizitzako loŕa ta
gustiei arpegi em
indartsu ta sendo
ko bizitza ugaria
riak, bizitza mard
dirala olako gizon
Aulkeri ta epe
geinke, eta saŕitan
tan esaten dogu, J
ez dago! Eta ainbe
ikusita ez da gitxia

Euskotaŕok be
eta edeslariak aber

# RRIAK

LDUAK




n Begoñakuen
naitia
ik zeustana
zkegia,
ganian dabilt
o gordia:
a neure lagun
indaria,
alaituten daust
eo bizia,
a, zeure ordez,
u neuria.

zadi'ko eŕitxu
rtzekua
ale apalen
gozua.
a'ko mendian
ako oyua
anian ziar
intza dua,
otz aguŕau
az darua
Euzkadi eta
eŕitxua!

# KUNAREN

u-ikasbide jai bi edo iru
t Mungia'n eta irugaŕ-

agiten dautsen auŕera-
a-mutiltxoak bizkortzen
sleak... ene irakasleak
eta abadeak eurak be
ztu guk euren eŕietara

# Gizon ete dira?..

*Gizon asko dakustaz*
*umetxo antzera,*
*jira-biraka beti*
*batetik bestera.*

*Gaur eretxi bat dauke*
*etsiko beste bat,*
*urte bete bařuan*
*eretxi piĺo bat.*

*Batan auŕean zuri,*
*bestean goŕizka,*
*dirudi dabiltzala*
*ume lez yolaska.*

*Benetako izaten*
*iñoz ez ikasi,*
*egiaren ondotik*
*beti daoz igesi.*

*Yaungoikotzat urdaĺa*
*aldezletzat miña,*
*zer yan ez eukitea*
*oŕeintzat samiña.*

*Danakaz adizkide,*
*iñogaz ez gizon,*
*olangotan ba'dago*
*ugari ta nai non!*

*Aŕitu eingo gara*
*au olan izanik,*
*argiz be ezin bo'gu*
*aurkitu gizonik?*

*Ze gizon dira oŕeik,*
*beti aldatzea,*
*ba'da olangoentzat*
*bizitza legea?*

*«Eguzkia nora ta*
*araxe zapiak»,*
*eroateko dabez*
*alegin gustiak.*

*Oŕexeik bai'dirala*
*gustiz kaltegaŕi,*
*txaŕak baño geyago*
*gutzat bildurgaŕi.*

*Ortxe da gure gatxa*
*or dago untzea,*
*oŕein eŕu da saŕi*
*ezer ez eitea.*

*Ondo yatorkenari*
*beti daoz begira,*
*olangoak benetan*
*gizon ete dira...?*

*GABIREL*

# Gure aizkidiak

**Ormaetxea'tar Kepa A. Jauparija il da**

Eta bizi izan zalez il be. Jaungoiko -Zale bizi. Jaungoiko-Zale il (G. B.) ... zan, ezkerotiko

a, ba, ikaslea irakaslea
ago, ezta mořoya be
ño nagosiago. Ni ba-
ik jaurti nabe; zuek be
tue; Ni, gurutzean jo-
be; gomuta, ba, zuek
ien edonork Jaungoi-
gin dagitsola usteko
datorkitzuela.
a, aldi onetako jasar-
soak dirala-ta, ařitu
biderik. Auřeztik ira-
Jesus'ek gizartean
atzak izango gendu-
etatik egotzi; iraindu;
si; aintzakotzat artu
kendu; ostikopean
ari yagozan eskubi-
enak, aintzat artu ez;
enak ba'giña legez
ori guzti ori, zuzen
elakoan; ori ta geya-
akoan; Jaungoikoa'
gurgintza, Jauna'ri
n egipenen bat da-

itez artegatu, kistai
a-ta, abeřitik atzeři-
n dituen Kristo'ren
suak. Ezpeitez arte
abak kistarki azteko
skubide jatořaken
gurasoak. Ezpeitez
en ziñesmena dala
bazteko bidea itzi
r benak. Ezpeitez
o laño baltzak dirala
naren bildur diran
asleak. Ez gogo-
n esamesez ta irañez
duta dabezan eleiz-
ta kirmen iraun. Ez
z. Ezkagoz bakařik.
a, Espiritu Santua
utzuet. Berak poz-
Berak emongo dau-
o naigabe guztiak
ore ta kemena. Baita
i aoa izteko bear
n añako jakituria be.
tuko da; laño baltzak
Eguzkia sortuko da.
bai, zuen biotza poz-
edozela poztu, ganez
ozez beteko da, ta
eztau amairik izan-

Goteuna gure biotz-
tuři bizia, betor sua,

ořetara.

## LORATXOEI BEGIRA

*Loratxoak udabařiz*
*sortzen dira samurki,*
*ain txukun ain zoragaři,*
*zelan diran, nok daki?*

*¿Nondik ain margo politak?*
*¿Nondik ain azal leuna?*
*¿Nondik dator zabaltzen daun*
*luřun-gozotasuna?*

*Luřeko zukutik ete?*
*Laspelan alikatzez?*
*Euri ta iñontzez ala*
*eguzkian indařez?*

*Artu beiz yakintsuenak*
*esandako gustiok;*
*eta ořen antzekorik*
*egin leikez gaur iñok?*

*Loratxoak egin dauna*
*gizonak ezin egin,*
*aren bařuan zer dagon*
*ezin geinke guk yakin.*

*Alan be zerbait dagola*
*indar-bizia dana,*
*egi argi-argia da*
*ezin uka leikena.*

*¿Nondik daukon indar ori?*
*¿Zer dan daukon bizia...?*
*yakitun gustientzako*
*buruauste gořia.*

*«Alatz» au azalduteko*
*bakařa dan bidea,*
*Yauna'ren esku altsua*
*loretan ikustea.*

*Loren samurtasunean*
*Yaun-maitasun samuřa,*
*euren bizitz galgařian*
*neurgea dan indařa.*

*Yakitunen gañetiko*
*yakituri neurgea,*
*ikustea... orixe da*
*sentzundunen bidea.*

*Ori ez dabena ikusten*
*yakitun deituta be,*
*«sentzunbako yakitun da»*
*egiz au esan geinke.*

*G A B I R E L*

## Alde gustietako izparrak

egiten dautsoela dirudi, ta euli, eltxo ta erlakaz egin oi dan antzera, beragandik astintzeko asmo ta gogua oingoxe agertu dau. Kontuz ibiĺi adi, baña, mutil. —Zer dala ta? Batsuek on-onian iges egiřen bajakijek be ba, beste batsuek... euren esten zořotza sartu arte etxakijek-eta.

Oin itxartu zarie..? Onen antzeko makiñatxo bat «txakur» zaunka entzun biarko yuagu. Baña onetan geu be ezkařuk ain txařak.—Tira: asi ba: «Au! au! au!!» Euzkadi'k berari ostu dautsoena biar dau.

—Gutxiago ez ixatiařen kastiĺa guztiko Udalak be batzar nagusiren bat egiřeko asmoetan ei -dabilz, Katalunia'k eta Euzkadi'k aurkestuten dauzen estatutueri auřera juaten ez isteko.

Ořei guztijori «euzkotařok ezertxo be ezkiñala ta ezertarako be ezkiñula balijo», orain-arte guztijan, ao bete betian entzun dautsegun ařen, gugaz ainbat arduratuten diran ezkero, zerbait ixan biar gara. Eskařik asko! Baña zuek zeuen izkuntz, ořua ta beste zer guztijakaz or, ta gu, geuriakaz emen ez ete giñake asko be obeto bixiko..?

*(Oviedo).*—Uri onetako Gotzain (Obispo) Jaunak Avilés deritxon eřiko epaikarijei bere asařia agertu ei dautse Kastriĺon'go alkate jauna, bape eskubide barik sazpi kanposantun jabe egin dalako.

Ez gutxi be gero! Jauntxo au, ilten danian, bera obiratzeko tokirik ixango ez ete daben bildur ete da? Ene gixontxo ori, ez estutu! I ta ire antzeko guztijentza ko-lain toki edonun ixangok...

*(Avila).*—Arévalo eřitxuan bertoko Udalaren aginduz, bidaztijen Ama eritxon basatxano baten onduan eguan kurutze bat bota ta kendu ei dabe, ango kistar zintzuak bat-eginda, erabagi onen aurka jagi ta euren asařia gogoz agertu dabela.

Makiñatxo bat atxur-kirten bai jagok oindiño baster ořetan!

*(Seviĺa).*—Lotsabako gazte-aldra batek, zapi bat gasoliñiagaz ondo busti ondoren, su-emon eta baten bařura jaurti ei eben. Zorijonez laster konturatu ziran-da, baťa berialaxe amatau be.

Ez ete dira oindiño lengo basatikerijakaz naikotu...?

—Salvaleón (Badajoz), Bonillo

nez, Yen Japon'go mi..istruak
tzat artu ei dauz Lapson inga
tar-altseñak, ainbat ariñen eta
dan eran alkar-aitzeko bida
dautson idatzija, eta euren ar
darabiĺen eztabaida au konp
tzeko batzařak larunbatian
asiko ei dire.

Nozbait alkar ařuko ete d
Onela balitz gatz-erdi, baña
rapiĺo au, egun onetan be
ikusten diranakaz, azkatu bia
ez ete dabe geyago ta gey
nastauko. Neure ustez txin
kopetak eztira ain eřaz azk
kuak... Ule gogortxuegija da
la deritxat.

*Portugal* - (Lisboa).—Fe
de Alemtejo deritxon eřijan
bat lugin (lur langiĺe) alkar
jaso ei ziran komunismuaren
didarka: eta guztijak, aginta
guardiazibiĺen esanai jaramo
rik, Beja eriruntz zuzendu
Baña bertatik urtenda eu
nuntz etořan beste guardi
aldra bat ikusi orduko, an
kuari emon eta bakotxak al
eran, solo ta basuak-ziar ig
eben.

Ez al dira eurok Rusiara
gelditukо...!

# Kirolak-Jolas

## PELOTA

### Gernika'n.

Lengo zapatu gabien jokatu
Gernika'ko pelota tokijèn, ga
renengo malan dabiltzazan pe
jek. Ori dala edo jente aldra an
-be batu zan bertan Rubio ta U
ziran Etxabe IV ta Kortabita
aurka, joko edeřa egin eben gu
batez be atselarijek. Irabazi Et
-eta, alde gitxi-gitxijaz, egin
Ostian bakařa-bakařen aurka
Ubiĺa II ta Elgezabal, onek i
eutsan, jote geitxuago daukela

*Astelenian*. Irureta Monas
Zabala Artamendi'en aurka,
irabazi.

*Sestos*. Unanue-Peña, Ařie
barte'n aurka onek, tantu be
irabazi



## ...GUNA

...artean alegin gustiz ...straitu eta eragin. ...Ekintzan lan onu...go eginbeaŕa. Ori ...lago. Beste arazo ...n ibiĺiko litzakez. ... amaitu, Kristiñau ...dabenen biotzetan ...a negargaŕi ta ain... ...uruan ez genduke

**...sbidean asi ala**

**...sbidean amaitu**

...bidea, eta oŕetara... ...loguz. Malaga'ko ... bat al daben azal... ...diñosku; «Gizarte... ...su, gustiz beaŕe... ...ira; *baña Kristi... ...auke, ala elburu ...ŕetik ala ostetik* ...neure argi labuŕez ...asi aerem verbe... ...a, au da garbi itxu... ...i, egia esan, ez da ... dala-ta Kristiñau ... onen aldezko ai... ...aituaz, irakasteko ...ogoa biztuten da... ...e dituan edonork, ... esku zabalez la... ...a uste dogu olan...

**...n, "Euskeldunei**

:-: :-: :-:

...«euskeldunei eus... ...tzañen agindu ar... ...ena, ta astia alpeŕik ...egiak ikusteko di... ...bere izkuntzan eta ...zik, lur gañean gel... ...koriak yan, ala ai... ...uko dabena. Eta orj ...ginbeaŕa ez dau be... ...bak diran ikusteko ...eta Bages Gotzain ...umeal *erderaz* ira...

## AMA'REN IĹA

*Ortxe goi-urdiñan*
*argia dis-diska,*
*beren izpiakaz,*
*poza zabaltzen,*
*aran ibaŕetan*
*lili eta lorak*
*luŕun gozoagaz*
*dana gozatzen,*
*sasi zugatzetan*
*txoritxo politen*
*abestu samuŕak*
*dodaz entzuten.*

*Izadi gustia*
*dakust alaiturik,*
*pozaren-pozagaz*
*esti-estitzen.*
*Baita suŕumuŕu*
*gozo amultsu bat,*
*eten barik nago*
*beti entzuten,*
*lo zoŕoz daukadan*
*biotz aldakor au*
*esnatuta pozez*
*dauna betetzen:*
*«Ama'ren iĺa da,*
*Oŕiĺa pozkaŕi*
*esti, zoragaŕi:*
*¡Agurtu Miren!*
*¡Agurtuizu Ama!*
*Agurtu biotzez,*
*ludi Bakalduna*
*¡Agurtu lenen!»*

GABIREL

— DATORREN ILLERAKO —

**Jesus'en Biotzaren Iĺa.** Izen... gaz Oar-arteta'tar Jose Antonio Abade gastiak idazti polita oraintxu egin dau, ta «Jaungoiko-Zale»ren idaztitegian ta beste idaztitegi nausietan saltzen da 1'25 lauerlekoan. Azal obiaz 1'75.

**Jesus'en Biotzaren Iĺa.** Azkue abade jaunak aspaldion egiñiko...

tamal andia agertu dabe. Il otoitzak katolikori lez egin yakoz, berak gurari ori garbi agertu ebalako. Berak 1941'n esan eban: «Ni Erkaldeŕiko lendakari nazan bitartean zoritxaŕen bat gertatzen ba'yat, il diñot, neure ingien artean ilburuko bat aurkituko dala, ta bertan abadeen laguntasuna eskatzen dodala». Gogo ona agertu dau beintzat, eta Yaunaren auŕerako ondo etoŕiko yakon.

Toki askotan il otoitzak egin dautsiez, eta Madrid'en agintarien arteko ta gusti il otoitzak izan ziran. Orduan «laicismo» atzaz zer oldosten ete eben?

**Gotzañik zaŕena Aita Santua ikertzen**

Oŕila'ren 18'n Aita Santua ikertu dau, Iurbiran dan Gotzañik zaŕenak. Berau Pantzeska M. Redwood agurgaŕia Nouva Zelanda'ko Wellington'go Gongotzaña da. 1839'ko Urtaŕila'ko 6'n Birminghan'en yayo zan. Euskotaŕoi Poru edo eskubideak kendu baño bederatzi ilabete ta erdi lenago. Txikia zala gurasoak Nouva Zelanda'ra aldatu ziran, eta antxe Andra Maria'ren Gopatzan sartu zan. Ikasketak Parantzen egin zituan, eta baŕiro Zelarda'ra yoan zanean Gotzain izentauta egoan. Au zan 1874'ko Otsaila'ko 10'n, eta gero bertan Gongotzain egin eben 1887'gn. urtean. Aita Santuak maitasun andiz artu dau eta luzaroan zar agurgaŕi onegaz autuan egon zan bere goterkiaren baŕi entzuten. Ikertzearen amaieran, esan eutson «ad limina» deritxon Aita Santua ikertzea amabi bider egin ebala, eta bost Aita Santu'ren

# TXISTUA TA ERESBATZA

*Udabaŕiko aŕats batean mendian negon,*
*edertasunai begira,*
*Txistu zolian anots gozoa elduten zala*
*bakez nengoan tokira.*

*Mendi orlegi, pitxiz beteko zelai baratzak*
